

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Erriberagoitiko udalerriko balioztapen txostenetik eratorritako katastro balioak bulegoan bertan jakinaraztea

Foru Gobernu Kontseiluak, urriaren 30ko 578/2018 Erabakiaren bidez, Erriberagoitiko balioztapen txosten berria onartu zuen; txosten horretatik eratorritako katastro balioak interesdun bakoitzari bere bizilekuan jakinaraztearekin batera, honen bidez iragartzen da aipatutako balio horiek bulegora etorrira ere jakinaraz daitezkeela.

Horretarako, ondasun higiezinaren gaineko zergaren subjektu pasiboak Ogasunaren bulegoetara etor daitezke (Samaniego kalea 14, bigarren solairua), 8:15etik 14:30era, Erriberagoitiko balioztapen txosten berritik eratorritako katastro balioen jakinarazpena jasotzeko.

Jakinarazpen hori hamar eguneko epean jaso daiteke, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 5a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
JOSE LUIS CIMIANO RUIZ